



# harro gaude!

**LGTBI+ pertsonen bizi baldintza duinak  
bermatzeko plana**

Plan para garantizar condiciones de vida dignas  
a personas LGTBI+

Amasa-Villabonako Udalak, Eihera Kooperatibarekin elkarlanean, egitasmo jarri du martxan LGTBI+ kolektiboaren bizitzak duintzeko, diskriminazio edota fobia-rekin amaitzeko eta pertsona guztien askatasuna eta errespetua bermatzeko. Azterlan honen helburu nagusia herriko LGTBI+ kolektiboak dituen beharrak eta erronkak identifikatzea da. Honek, gainera, gizarte inklusiboagoa eta errespetuzkoagoa sortzeko irtenbide berritzaileak proposatzeko gida gisa balioko du aurrerantzean.

Proiektua Amasa-Villabonako LGTBI+ komunitateko kideei hainbat elkarriketa eginez gauzatu da. Gainera, herriko mugimendu feministarekin lankidetzan estuan burutu da. Honek oztupoak jorratzeko eta aldaketa sozial positiboak sustatzeko ikuspegi integral bat garatzen lagundu du.

Lortutako emaitzei esker, Amasa-Villabonako Udalak politika publiko inklusiboak ezartzeko eta, oro har, herritarrei zuzendutako sentibilizazio- eta hezkuntza-programak sortzeko oinarri sendoa izango du.

Udal honek errespetuaren, ulermenaren eta onarpenaren kultura sustatzeko konpromisoari eusten dio, non herritar guztiak bizitzeko eta beren burua adierazteko erabat aske sentituko diren, orientazio sexuala edo genero-identitatea edozein delarik ere.

*El Ayuntamiento de Amasa-Villabona, en colaboración con Eihera Kooperatiba, ha llevado a cabo un plan con el objetivo de dignificar las vidas del colectivo LGTBI+, acabar con las discriminaciones y fobias, así como garantizar la libertad y el respeto hacia todas las personas. Este estudio también tiene como propósito identificar las necesidades y los desafíos a los que se enfrenta el colectivo LGTBI+ de la localidad, y servirá como guía a la hora de proponer políticas innovadoras para crear una sociedad más inclusiva y respetuosa.*

*Este proyecto se ha llevado a cabo realizando diversas entrevistas a miembros de la comunidad LGTBI+ de Amasa-Villabona. Además, se ha trabajado en estrecha colaboración con el movimiento feminista de la localidad, lo que ha ayudado a desarrollar un enfoque integral que aborde las barreras existentes y promueva un cambio social positivo.*

*Los resultados obtenidos servirán al Ayuntamiento de Amasa-Villabona como base para la implementación de políticas públicas inclusivas y la creación de programas de sensibilización y educación dirigidos a la ciudadanía en general.*

*Este Ayuntamiento mantiene el compromiso de fomentar la cultura del respeto, entendimiento y aceptación, donde todas las personas se sientan libres para expresarse y vivir plenamente, sin importar su orientación sexual o identidad de género.*

# ASKATU beharreko korapiloak

Neurriak eta politikak diseinatzerakoan, funtsezkoa da tokiko errealitatea kontuan hartzea, izan ere, komunitate bakoitzak bere ezaugarri, behar eta erronka bereziak ditu. Amasa-Villabonan burututako landa-lanarekin herriko egoeraren erradiografia zehatza lortu dugu.

Elkarrizketatuek planteatutako iruzkinen eta kezken konbinazioak, Eihera Kooperatibak identifikatutako aurkikuntzekin batera, estrategia eraginkorrak garatzeko oinarri sendoa emango du.

*Es esencial considerar la realidad local al diseñar medidas y políticas, ya que cada comunidad tiene sus propias características, necesidades y desafíos. Gracias al trabajo de campo realizado en Amasa-Villabona, hemos conseguido una radiografía detallada de la situación en nuestra localidad.*

*Con la combinación de los comentarios y preocupaciones planteados por los/as entrevistados/as, y los identificados por Eihera Kooperatiba, contamos con una base sólida para desarrollar estrategias efectivas.*

**Armairutik ateratzeko baldintzak**  
*Condiciones para salir del armario*

**Gorputz adierazpena  
eta estetika homogeneous**  
*Expresión corporal y estética homogéneas*

**Bizi-eredu tradizionalak**  
*Modelos de vida tradicionales*

**Maskulinitatea eta  
gizonen jarrerak**  
*Masculinidad y actitud de los hombres*

**Aisia eta gaua**  
*Ocio y vida nocturna*

**Kirola**  
*Deporte*

**Behartutako migrazioa  
(Sexilioa)**  
*Migración forzada (Sexilio)*

**Hiria eta herriaren arteko  
desberdintasunak**  
*Diferencias entre la ciudad y el pueblo*

**Norberarekiko zama, muga  
presio eta zigorrak**  
*Carga personal, límites,  
presiones y sanciones*

**LGTBI+ zahartzaroa**  
*Vejez LGTBI+*



## Zer behar ditugu Amasa-Villabonan?

Amasa-Villabonako LGTBI+ kolektiboko pertsonekin eta mugimendu feminista bezalako funtsezko gizar-te-eragileekin egindako elkarrizketei esker, herrian dauden beharrak identifikatzea eta aztertzea lortu da.

Informazio hau funtsezkoa da Amasa-Villabonako LGTBI+ pertsonen errealitateak eta esperientziak ulertzeko, eta herritar hauen beharrei modu eraginkorrean helduko dieten politikak eta neurriak garatu ahal izateko.

*Gracias a las entrevistas llevadas a cabo con personas del colectivo LGTBI+ de Amasa-Villabona, así como con agentes sociales clave, como es movimiento feminista local, se ha conseguido identificar y analizar las necesidades existentes.*

*Esta información es fundamental para comprender las realidades y experiencias de las personas LGTBI+ de Amasa-Villabona y poder desarrollar políticas y medidas que aborden sus necesidades de manera efectiva.*

### **INFORMAZIOA, EZAGUTZA ETA BALIABIDEAK**

Erakundeek baliabideak jarri behar dituzte kolektiboek dituzten beharrak ezagutzeko, eta informazio eta akonpainamenduko zerbitzu inklusiboak sustatzeko. LGTBI+ pertsonen, beraz, baliabideen informazio argia eta eguneratua izango dute, horrela, sortu daitezkeen nahaste, erru, beldur eta aurreiritziak minimizatu egingo dira.

### **INFORMACIÓN, CONOCIMIENTO Y RECURSOS**

*Las personas LGTBI+ contarán con información clara y actualizada de los recursos que ofrecen las instituciones. Así se minimizarán posibles trastornos, culpas, miedos y prejuicios.*

### **IKUSGARRITASUNA, ERREFERENTZIALTASUNA ETA MEMORIA**

LGTBI+ komunitatearen estereotipoekin amaitu, eta erreferente positiboak behar dira, errealitatea zabala eta heterogeneoa dela erakusteko. Horren aurrean, baliagarria izan daiteke LGTBI+ pertsonen errekonozimendu publikoa egitea herriak onartzen dituela sentiarazteko, eta pairatu duten bortizkeria erreparatzeko.

### **VISIBILIDAD, REFERENTES Y MEMORIA**

*Acabar con los estereotipos de la comunidad LGTBI+ requiere referentes positivos que demuestren que la realidad es heterogénea. Ante esto, puede ser útil hacer un reconocimiento público a las personas LGTBI+ para que se sientan aceptadas y poder reparar la violencia que han sufrido.*

### **INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK**

LGTBI+ komunitateak jasaten dituen erasoak ez dira beti salatzen, eta horrek inbisibilizazioa dakar. LGTBI+ fobia, ordea, egiturazko indarkeria da, eta eraso horien ardura kolektibizatu egin behar da.

### **VIDAS LIBRES DE VIOLENCIA**

*La LGTBI+ fobia es una violencia estructural cuya responsabilidad debe ser colectivizada.*

**"Neurriak eraginkorrak  
eta eraldatzaileak izateko  
instituzioen,  
mugimendu sozialen  
eta LGTBI+an  
adituak direnen arteko  
elkarlana ezinbestekoa  
izango da"**

**ESPASIO PUBLIKOA, AISIALDIA  
ETA PLAZERA**

LGTBI+ pertsonak ez dituzte askatasun osoz bizi haien harreman, sexualitate, identitate eta sexu- eta genero-adierazpenak. Beraz, begirada zigortzailerik gabeko, eta segurtasuna eta askatasuna bermatuko duten espazio propioak sortu behar dira.

**ESPACIO PÚBLICO, OCIO Y PLACER**

*Hay que crear espacios públicos sin miradas punitivas y que garanticen la seguridad y la libertad de las personas LGTBI+.*

**SAREA, ZAINTZA ETA KOMUNITATEA**

LGTBI+ pertsonak hiri handietara joan izan dira - sexilioa - anonimotasun eta aniztasun bila. Ondorioz, LGTBI+ komunitatearen falta daukagu Amasa-Villabonan. Honen aurrean, beharrezkoa da LGTBI+ erreferentziazko espazio fisiko zein birtualak sortzea, kolekti-boaren ahalduntzea sustatzeko.

**RED, CUIDADOS Y COMUNIDAD**

*En Amasa-Villabona se nota la falta de comunidad LGTBI+, por lo que es necesario crear espacios de referencia LGTBI+, tanto físicos como virtuales, que fomenten el empoderamiento del colectivo.*

**KOLEKTIBOIA ETA INSTITUZIOEN  
ARTEKO INTERLOKUZIOA**

LGTBI+ pertsonen bizitzak hobetzeko politikak diseinatzerakoan kolektiiboak ahotsa eta erabaki-boterea eduki behar du. Beraz, beharrezkoa da instituzioen eta pertsona horien arteko interlokuzioa egonkortzea.

**INTERLOCUCIÓN ENTRE EL COLECTIVO Y LAS  
INSTITUCIONES**

*Si se quiere incidir en la mejora de las vidas de las personas LGTBI+ es necesario estabilizar la interlocución entre las instituciones y este colectivo.*



**ERAKUNDEEN BARRUKO ERALDAKETA**

Udaletzeko sailetan hartzen diren erabaki, neurri eta politikak eragin zuzen-zuzena dute herria eta herritarrengan. Horregatik, eraldaketa sakona nahi baldin badugu, funtsezkoa izango da gaiaren inguruko politikak inplementatzerako garaian LGTBI+ eragile eta adituekin batera abiatzea prozesua.

**TRANSFORMACIÓN DE LAS ORGANIZACIONES**

*Si queremos que la transformación sea profunda, será fundamental que a la hora de implementar políticas en esta materia se trabaje de forma conjunta con agentes LGTBI+.*



# harro gaude!

Diskriminaziorik, LGTBI+ fobiarik  
eta indarkeriarik gabeko herri bat nahi dugu,  
eta guztion artean, bakoitzaren desirak  
eta identitateak modu askean bizitzeko aukera  
eskainiko duen Amasa-Villabona eraikiko dugu.

---

Queremos un pueblo sin discriminaciones, sin LGTBI+ fobia  
ni violencia, y para ello, entre todos y todas,  
construiremos una Amasa-Villabona  
que ofrezca a cada persona la posibilidad de vivir  
libremente sus deseos e identidades.